

# BIDEO LEHIAKETAREN OINARRIAK

## "KULTURA BONUA"

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatutako "Kultura Bonua" kanpainarekin bat eginez, eta Sailarekin lankidetzan, eitb.com eta Kulturklik atariek bideo-iragarkien lehiaketa bat deitu dute bonuaren berri emateko, horrek izan ditzakeen erabilera eta aplikazio ugariak erakusteko, eta, oro har, kulturaren kontsumoa sustatzeko, dibertsio-iturria izateaz gain, norbere burua aberasteko eta kultura garatzeko balio baitu.

"Kultura bonua"ren inguruko lehiaketan ("Lehiaketa") parte hartzeko, lehiakide guztiek [www.eitb.com](http://www.eitb.com) eta [www.kulturklik.net](http://www.kulturklik.net) guneetan ikusgai izango diren Oinarriak onartu beharko dituzte.

Lehiaketaren antolatzaileek ("Antolatzaileak") Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko, eitb.com-eko eta kulturklik.net-eko ordezkariak osatuko dute.

### **1. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

1.1. Lehiaketan nahi duen edozein pertsonak edo taldek parte har dezake, amateurra zein profesionala izan, eta lanak banaka zein taldeka aurkez daitezke, bi lan pertsona edo talde bakoitzeko, gehienez ere.

Talde horiek 18 urtetik gorako pertsona fisikoek edo bi gurasoen edo, horrela behar badu, legezko tutoreen idatzizko baimena duten adingabeek osatu ahalko dituzte.

1.2. Lehiaketan parte hartzea doakoa izango da eta banaka edo taldeka egingo da. Edonola ere, pertsona bat (egile gisa emango du izena Lehiaketan) izango da ordezkaria eta solaskide bakarra Antolatzaileekin izango diren harremanetan.

1.3. Parte-hartzaile guztiek onartu egiten dituzte euren pertsonaren gaineko irudi eskubideak hartzea eta, hala behar badu, euren iragarkien gaineko jabetza intelektualari dagozkion eskubideak uztea. Antolatzaileek bermatu egingo dute pribatutasun politika eta informazio hori Antolatzaileak ez diren beste konpainia batzuei ez banatzea.

1.4. Antolatzaileak ez dira arazo teknikoak direla eta ikusi ezin diren bideoen erantzule.

1.5. eitb.com-ek eta Kulturklikek ez dute inolako erantzukizunik bere gain hartuko, bere kontrolpean ez dauden edo sareko operadoreei, tarteko zerbitzu-emallei edo hirugarren batzuei egotzi dakizkiekeen arazo teknikoak edo bestelako arazoak direla-eta lehiaketara aurkeztutako bideo bat galdu edo berandu iristen bada, software

arazoak edota sartzeko komunikatzeko edo erantzuteko arazoak badaude, edo lehiaketa aldatu behar bada.

## **2. IRAGARKIAREN EZAUGARRIAK**

2.1. Lehiaketaren gaia "Kultura Bonua " da eta iragarkiak zer den eta nola erabili behar den azaldu beharko du.

2.2. Gidoia errealitatean edo fikzioan oinarritutakoa izan daiteke, edozein estilo duela ere, baina originala izan beharko du eta "Kultura Bonua"ren ingurukoa.

2.3. Iragarkiak gehienez ere 40 segundoko iraupena eta 2 GB baino gutxiagoko tamaina izan beharko du, eta Antolatzaileek eitb.com-en parte-hartzaileen esku utzi duten kareta izan beharko du.

2.4. Bideoa AVI, MOV, MP4, FLV, MPEG, 3GP eta MKV formatuetan aurkeztu ahalko da.

2.5. Iragarkia Lehiaketak eitb.com-en izango duen orrialdera igo beharko da, eta bertan dagoen inprimakiaren eremu guztiak bete beharko dira.

2.6. Parte-hartzaileek bermatu egingo dute ez dutela eduki edo errealizazio aldetik pertsona-eskubiderik, lan-eskubiderik edo hirugarren baten jabetza intelektual zein industrialaren eskubiderik urratzen duen lanik aurkeztuko. Parte-hartzaileak berak bermatuko du baldintza hori betetzea, eta bera izango da horren erantzulea. Beraz, eitb.com-ek eta Kulturklikek ez dute inolako erantzukizunik izango hori betetzen ez bada.

2.7. Bideoetan ezingo da inola ere pertsona, erakunde edo sinesmenik iraindu, laidoztatu edo umiliatu. Antolatzaileek baztertu egingo dituzte euren ustez baldintza hau betetzen ez duten lanak.

## **3. SARIA**

3.1. Lehiaketak hiru sari izango ditu (lehenengo saria, bigarren saria eta ikusleen saria), eta EITBk emango ditu.

Lehiaketa honetako lehenengo sariak HIRU MILA EURO (3.000,00 €) emango dizkio iragarki onenari; bigarren saria BI MILA EURO (2.000,00 €) izango dira, hurrengo sailkatuarentzat; ikusleen saria lortzen duenak, berriz, MILA EURO (1.000,00 €) lortuko ditu. Sari horiei indarrean dagoen legerian zehaztutako atxikipen fiskala egin beharko zaie.

Horrez gain, Ikusleen Saria hautatzeko botoa ematen dutenen artean bi sari zozkatuko dira; 40 euroko bost "Kultura Bonu" izango ditu bakoitzak.

3.2. Antolatzaileek eurek zehaztuko dituzte Lehiaketan parte hartuko duten bideoak puntuatzeko eta baloratzeko irizpideak. Dena dela, lanen ezaugarri teknikoak baino, horien originaltasuna eta edukia hartuko dituzte kontuan. Antolatzaileen erabakia apelaezina izango da.

Antolatzaileek eman gabe utzi ahalko dituzte eurek eman beharreko sariak. Ikusleen saria eta boto-emaitzen artean zozketa bidez eman beharreko biak, berriz, nahitaez eman beharko dituzte.

3.3. Antolatzaileek sari bereziak emateko aukera izango dute, bideo baten ezaugarriak direla-eta sari edo aipamen berezirik merezi duela uste badute.

3.4. Antolatzaileek 2011ko urtarrilaren 18an emango diete irabazleei euren erabakiaren berri.

3.5. Azken emaitza eitb.com eta Kulturklik webguneetan jakinaraziko da.

## **4. PROZEDURA**

Lehiaketak lau fase izango ditu:

### **I. FASEA. Iragarkiak igotzea.**

Noiz: **2010eko abenduaren 13tik 2011ko urtarrilaren 3ra**, biak barne.

Parte-hartzaileek eitb.com-era bidali beharko dute euren iragarkia, eta onartu egin beharko dituzte Lehiaketaren oinarriak, horretarako beren-beregi sortuko den aplikazioan.

### **II. FASEA: Bideo finalistak aukeratzea.**

Noiz: **2011ko urtarrilaren 4tik 2011ko urtarrilaren 6ra**, biak barne. Antolatzaileek iragarki finalistak aukeratuko ditu eta eitb.com-en orrialde batean aineratuko dira, internautek nahiago duten bideoari botoa eman diezaioten.

### **III. FASEA: Iragarki irabazleak hautatzea.**

Noiz: **2011ko urtarrilaren 7tik 2011ko urtarrilaren 17ra**, biak barne. eitb.com-eko erabiltzaileek gustukoen duten bideoari botoa emateko aukera izango dute; horrela erabakiko da Ikusleen Saria nori eman. Antolatzaileek, berriz, Lehiaketa honetako irabazleak aukeratuko ditu; lehenengo eta bigarren saria jasoko duten bideoak, alegia.

### **IV. FASEA: Irabazleei jakinaraztea.**

Epea: **2011ko urtarrilaren 18an**. Antolatzaileak irabazleei deituko diete, horren berri emateko.

## **5. ESKUBIDEAK LAGATZEA**

5.1. Ordezkariek eta taldeko kide guztiek aitortu egingo dizkiete eitb.com-i eta Kulturklik-i Creative Commons By-Nc lizentzian jasotzen diren eskubideak (erabiltzeko, hedatzeko, Internet edo ikus-entzunezko ezein baliabideren bidez komunikatzeko, zabaltzeko eta erreproduzitzeko eskubideak). Horren arabera, jatorrizko lana ezingo da inolako merkataritza helbururekin erabili, eta horretan oinarritutako lanak sortu ahalko dira, merkataritza erabilerarik gabe betiere. Aitortza hori doan eta modu ez eskusiboan egingo da.

5.2. Parte hartzeko eskaria bidaltzen duen Ordezkariek iragarkiaren jabetza intelektualaren eskubide guztien jabe bakarra bera dela bermatuko du, eta, ondorioz, Antolatzaileak kalterik gabe utziko ditu, aipatutako bermea bete ezean hirugarren batek jar ditzakeen erreklamazioen aurrean.

5.3. Taldearen Ordezkariek bermatu egingo du parte-hartzaile guztiak 18 urtetik gorakoak (edo tutore legal batek sinatutako baimena duten adingabeak) direla eta iragarkian agertzen diren pertsonen euren onespina eman dutela eta euren irudiak hartzea eta jabetza intelektualaren eskubideak (lurralde-mugarik gabe eta legeak onartzen duen gehienezko eperako) lagatzea baimendu dutela ere bermatuko du.

5.4. Ondorioz, taldearen Ordezkariek bere gain hartuko du oinarri hauetan jasotako eskubideak lagatzearen erantzukizuna, eta Antolatzaileak ez dira berme horiek ez betetzearen arduradun izango.

## **6. OINARRIAK ONARTZEA**

Taldearen Ordezkariek eta parte-hartzaileek Lehiaketaren oinarri guztiak beteko dituztela onartzen dute espresuki. Guztiak [www.eitb.com](http://www.eitb.com) eta [www.kulturklik.net](http://www.kulturklik.net) guneetan izango dira ikusgai. Bertan jasotako baldintzetako bat ez betetzeak Lehiaketa honetatik kanpo geratzea ekarriko du zuzen-zuzenean.

Lehiaketa honetako parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik besterik gabe, onartu egiten dituzte horren oinarri eta baldintza guztiak.

## **7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

7.1. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, Ordezkariek eta parte-hartzaileek badakite eta onartu egiten dute Lehiaketa honetan parte hartzeko ematen dituzten datu pertsonalak EITBren fitxategi batean gordeta geratuko direla, oinarri hauetan jasota dagoen moduan kudeatzeko.

7.2. Oinarrietan zehazten da Lehiaketan parte hartzeko zer datu pertsonal behar diren. Datu horiek eman nahi ez izateak Lehiaketan parte hartu ezin izatea ekarriko du.

7.3. Parte-hartzaile bakoitzak Lehiaketa honetan parte hartzeko eskatzen diren datu guztiak eman beharko ditu, eta adinez nagusia dela aitortu; adingabea bada, gurasoen baimena beharko du idatziz. Parte-hartzaile bakoitzaren ardura izango da Lehiaketan parte hartzeko emandako datuak egiazkoak izatea.

7.4. Parte-hartzaileak Antolatzaileen fitxategian sartu dituen datu pertsonalak zuzentzeko, ezeztatzeko edo horiek erabiltzeari uko egiteko eskubidea erabili ahalko du. Eskaera idatziz egin beharko du, gutun baten bidez. Gutunazalean "Kultura Bonua Lehiaketa" erreferentzia jarri eta, Nortasun Agiri Nazionalaren edo identifikatzeko balio duen beste agiri ofizialen baten kopia batekin batera, EITBko Gardentasun Zuzendaritzara bidali, Basurtuko Kaputxinoak 2, 48013 Bilboko helbidera.

7.5. Lehiaketa honetan parte hartzeko bere datu pertsonalak ematen dituen parte-hartzaileak datu pertsonalen tratamenduari buruzko lege ohar honen testu osoa irakurri eta ulertu duela adierazten du eta onartu egiten du bai tratamendu hori bai Lehiaketaren oinarrietako eduki osoa.

## **8. KOMUNIKAZIOAK**

Galderaren bat egiteko edo oinarri hauetan ezarritako arauak urratu direla salatzeko edo beste edozertarako, parte-hartzaileek gutuna bidali ahal dute EITBren egoitza sozialera, Basurtuko Kaputxinoak 2, 48013 Bilbo helbidera.

## **9. ALDAKETAK**

Antolatzaileek eurek erabakiko dute aurretik ikusi ez den eta Oinarrietan jasota ez dagoen ezer gertatuz gero, eta Lehiaketaren baldintzak aldatzeko eskubidea izango dute, erantzukizunik bere gain hartu gabe, ezinbestekoa bada edo bere kontrolpean ez dagoen ezer gertatzen bada.

## **10. LEHIAKETAREN LURRALDE-EREMUA ETA FORUA**

Lehiaketan zehar eta oinarri hauek interpretatu eta aplikatzen inolako auzirik izanez gero, irabazleek eta parte-hartzaileek espresuki uko egingo diote horiei dagokien edozein forutara jotzeari eta Bilboko Auzitegi eta Epaitegietan hartzen diren erabakien mende geratuko dira.